



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA



Wear me! outfitak egiten denbora aurrezteko eta zure armairua kudeatzeko laguntzen dizun aplikazioa da.

Aplikazioaren ezaugarriak aztertu ondoren gure bezeroa irudikatu dugu eta honelakoa izango litzateke, 14-64 urte bitartekoak izango dira, izan ere, 14 urte berakoek ez dute mugikorrik app erabiltzeko eta 64 urte gorakoek iada mugikorrik erabiltzeko zailtasunak dituzte.

Demografikoki berriz, Produktua Espainiako merkatura bideratuta dago, baina ez da nazioartekotzea baztertzen, eta aplikazioa hainbat hizkuntza (ez baitu asko igotzen produkzio-kostua). Duri-sarrerei dagokionez, proiektu honek ez du diskriminatzen inor bere diru-sarrerengatik, horrela merkatu sektorea zati handi bati irekitzen gara. Gainera, gaur egun edonork dauka mugikor bat aplikazio bat instalatzeko. Nahiz eta, ez eduki diru-sarrera handirik gure aplikazioa kostuari dagokionez, eskuragarria izango da edonorentzako.

Gure aplikazioa jeitsiko duten pertsonak edozein motatako pertsonak izango lirateke, pertsona askok nahi dugulako denbora aurreztu janzterako orduan eta baita laguntza gure armairua kudeatzeko orduan. Gainera, edozein hizkuntza hitz egiten dutenak, hain zuzen ere app-ean hizkuntza aldatzeko aukera jarriko dugu edozeinek erabili dezan. Aldi berean app-ean ez da egongo sexu bereizketarik.



Beraz ondo pentsatu ondoren eta ikerketa batzuk egin ondoren, gure appa instalatuko zuen bezero bat, moda interesatzen zaion norbait izango litzateke, gure produktua sektore horretara bideratuta dagoelako.



Gaur egun, modu hauetako aplikazioak gazteek erabiltzen dituzte gehiago, beraz hauek izango lirateke gehiago gure bezeroak pertsona helduagoak baino.

Kontuan hartuta Espainian 47.350.000 pertsona daudela gure deskribapen eta adinera egokitzen den pertsona kantitatea 12.317.765 izango litzateke. Gainera Espainiako populazioaren %93,9 14 eta 74 urteko pertsonen artean internetko kontu bat dauka. Datu honekin ikusi dezakegu ze puntutaraino dagoen barneratuta interneten erabilera gaur egun eta gainera honekin jakin dezakegu gure aplikazioa jende askora helduko dela.